# 4.4 MATE (GF10)

1

Kandaduaren kodea hiru zifraz osatuta dago. Galdera edo eragiketa hauen emaitza zuzena aukeratuz ireki ahalko duzu.

| | Emaitza zuzena | Kodearen zifra |
|---|---|---|
| 25 zenbakia biribiltzen bada ateratzen den zenbakia da. | 30 | 3 |
| | 20 | 5 |
| Bi zifra ditu, kapikua da, eta zifra horien batura 12 da. | 66 | 4 |
| | 88 | 8 |
| Zenbaki karratua da, eta batekoen zifra hamarrekoena baino bi aldiz handiagoa da. | 36 | 2 |
| | 25 | 3 |

**Kandadua irekitzeko kodearen zifrak:** ____ ____ ____

**Erantzuna hauetako bat da, zein?** **542, 383, 342, 543**

LIVEWORKSHEETS

2

Orain, ordenagailua erabili nahi da, baina lau zifrako kodea eskatzen dizu. Galdera edo eragiketa hauen emaitza zuzena idatzita asmatuko duzu zein den kodea.




| | Emaitza zuzena | Kodearen zifra |
|---|---|---|
| 78 zenbakia biribiltzen bada ateratzen den zenbakia da. | 30 | 3 |
| | 80 | 7 |
| Hiru zifra dituen kapikua txikiena da. | 101 | 5 |
| | 121 | 2 |
| Zenbaki hirukia eta biribila da. | 20 | 2 |
| | 10 | 9 |
| Bi zifra ditu, zifren batura 4 da, eta kapikua da. | 22 | 1 |
| | 31 | 5 |

Ondo egin duzun egiaztetzeko, hartu kodearen lehen bi zifrak, eta kendu handienari txikiena; biderkatu emaitza hirugarrenarekin, eta kendu emaitzari azkena. Emaitza 17 al da?

Bai? Zorionak, ongi egin duzu!

Ez? Ba, errepasatu, nonbait akatsa egin duzu eta.

**Kodearen zifrak:**

LIVEWORKSHEETS

3

H

Hotel batean, kodifikazio bitxi samar hau dute gelak ordenatzeko:




## KODEAK HIRU ZIFRA DITU

- Ehunekoenak solairua adierazten du.
- Hamarrekoenak, berriz, gela korridorearen zein aldetan dagoen adierazten du. Bakoitiak ezkerrean daude, eta bikoitiak, eskuinean.
- Batekoak, azkenik, korridorearen hasieratik begiratuz zenbatgarrena den adierazten du.




a Non daude gela hauek?

242:

913:

LIVEWORKSHEETS

**4**

Autoen matrikulak ere kodifikatuta egoten dira. Letrak eta zifrak erabiltzen dira kode horiek sortzeko.

A eta B letrak behin eta 1, 2, 3 zifrak bi bider erabiliz, zenbat kode sor daitezke? Osatu diagrama, eta jakingo duzu. Ipini letra zenbakien aurretik.







**a** Zenbat kode sor daitezke guztira?

LIVEWORKSHEETS